

BALIO PROPOSAMENA:

Euskal musika entzuteko aplikazioa da, euskal artistei bultzada eman eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea helburu duena. Gazteek bertako musikaren ezagutza eskasa dute, normalean kanpoko musika entzuteko ohitura bait dute. Guk hemengo musikari eta abeslariak bizirik iraun dezaten nahi dugu eta beraien kanta eta bizipenak mundura zabaltzeko nahi ditugu. Hori dela eta, gure musika-aplikazioarekin Euskal musika entzuteko aukera izateaz gain, artisten inguruko datuak eta informazioa eskainiko dugu. Talde horiei egindako elkarrizketen inguruko podcastak publikatuko ditugu.

Hori dela eta, gure aplikazioak euskal musika entzuteko aukera eskaintzeaz gain, zerbitzu osatuagoa eskainiko du: artisten inguruko informazioa eta podcastak emango ditugu, diskoak online saltzeko gune bat izango dugu eta, horrekin batera, geure jaialdiak eta ekitaldiak sortuko ditugu euskal kultura eta musika zuzenean sustatzeko.

Horretaz gain, gure enpresan, genozidioaren kontrako filosofia eta justiziaren aldeko jarrera oso garrantzitsua da. Horretarako, Palestinaren alde borrokatzen duten elkarteekin elkarlanean arituko gara.

Gainera, gure proiektua justifikatzeko, ezinbestekoa da Spotifyren jabea den Daniel Ek-ek egindako inbertsioak aipatzea. *Carro de Combate* aldizkariak argitaratutakoaren arabera, Ek-ek 700 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu Helsing izeneko enpresan. Enpresa honek adimen artifiziala erabiltzen du dronak eta arma-sistemak garatzeko.

Helsing-ek gerra-teknologia ekoizten du Europako hainbat armadarekin lan egiten du. Lotura zuzen horrek polemika handia sortu du, erabiltzaile askok uste baitute Spotify ordaintzean zeharka gatazka belikoak finantzatzen ari direla. Horregatik, gure aplikazioak etika eta euskal kultura lehenesten dituen alternatiba bat izan nahi du.